



EBAZPENA, 2018ko irailaren 5ekoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita 2018-2020 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2018-2019 aldirian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia.

Hezkuntza sailburuaren 2017ko azaroaren 28ko Aginduak (EHAA, 238 zk., 2017ko abenduaren 15ekoa), 2018-2020 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2018-2019 aldirian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten du.

Deialdi horretan aurkeztutako eskabideak ikusi dira.

Ikerketa zuzendaria buru dela, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak eta ikerketa-programen teknikari batek osatutako ebaluazio-batzordeak egindako esleipen-proposamena ikusi da, eta deialdiko 13. artikulua ezarritakoarekin bat etorrita,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ebazpen honen 1.1 eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea, «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroko» 1. modalitateko ikerketa-proiektuak egiteko.

Bigarrena.- Ebazpen honen 2.1 eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea «Ezagutza Unibertsitate Enpresetara eramatea helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroko» ikerketa-proiektuak egiteko.


Hirugarrena.- Ebazpen honen 1.2 eranskinean ageri diren «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak ezestea aurrekontu-kreditua agortzeagatik edo eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

Laugarrena.- Ebazpen honen 1.3 eranskinean ageri diren «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak baztertzea bertan adierazten diren arrazoiengatik.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtoa jarri ahal izango da Hezkuntza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 5ean.


Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
ADOLFO MORAIS EZQUERRO



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN